

Juan Antonio Ubillos

Euskal Idazle

JOAN OTAEGI

Juan Antonio Ubillos Amasa-Villabonan jaio zen 1707an. Ume zela Arantzazun sartu zen franziskotar, eta han egin zituen ikasketak. Gero, Alcalá de Henares-en, unibertsitatean, alegia, sakondu zituen. Filosofiari buruz baditu hiru liburu idatziak latinez. Euskaraz bat bakarra du, eta bera, «CHRISTAU DOCTRIN BERRI-ECARLEA CHRISTAU ARI DAGOZCAN EGUIA SINIS-BEHARREN-BERRIA DACARRENA». Hordago, Donostia, 1778. Argitalpen hau Tolosan LAMA-renean egin zena bera da fasimilean. 1785ean argitaratu zena, alegia. 1789an hil zen Aranzazun.

Luis Mitxelenak dion bezala «txukun eta arretaz idatzia» du lan hau Ubillosek (Ikus: Luis Michelena, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, or. 102).

Juan Antonio Ubillosi euskararen sena sumatzen zaio. Ez du batere zail euskaraz idaztea. Berezkotasuna agertzen zaio. Taiu oneko prosa du. Ez da batere konplikatua, ez nahastua; argia baizik. Euskal, prosa ez du esaldi menperatuz betetzen, labur eta argi ebakitzen ditu esaldiak; baina ez dabil esaldi menperatuei iheska ere. Badakir nolako euskara erabili, bere iritzia egina du. Ez da bide horretatik irtengo. Honela dio: «Hizcunz bacoitzac ditú, hitzeguítco, berezcò, ta bere echeco hitzac: gure eusquerac beinzat bai... Ala baña, zori gaiztoan dacuscun bezala, euscaldun gvichic necatu nai du eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen. Eusquerazco hitzàc ongui ez-padirudi, edo oitua ez pada; hura utzi, haren ordean artuditeque, arc esan naiduana, adieràzteco adina dan, beste bat» (aipatu liburuan 3 eta 4 orrialdetan). Bere garaian sermoietan agertzen zen ardura gabekeria ez du bat ere maite. Hizkuntzaren barruko zaina agertu nahi du egoki. Ez doa nolanahi eta axolik gabe erdal hitzetara. Euskal hitza egokitzen jotzen ez bada, orduan bai, lasai joango da erdal hitzetara, ez bestela.

Bestalde, Larramendiren indarrak euskal literaturaren mende berri bat sortu bazuen ere, Larramendik berak erdaraz idatzi bait zuen, bere etsaien aurreko garbizalekeriak ez zuen hartainoko ondoriorik izan denbora hartako euskal, idazleetan. Lapurtera bikain agertua zen ordurako Axular eta beste zenbait idazlerengan, eta egoaldeko euskal, literatura ifarraldekoarekin loturik agertzen da. Geografiak ere horretara eragiten zuen. Gipuzkoa sortaldekoak bait ditugu lehen idazle bikainok: Ernani, Oiartzu, Amasa-koak, alegia, Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos.

Hauen aurretik hor ditugu «Teatro zaharraren» hasikinak, baina halaz ere nahiago izan dut aurretik zetorren euskal literaturaren sena eta iturria Ubillosengan aztertu.

Hizkuntz azterketa egingo dut. Eta sail honetan ere alderdi bat besterik ez: foniko eta morfosintatiko azterketa besterik ez. Ubillosen bereizgarri zenbait nabarmenduko ditut, haren hizkuntzaren ezaugarri batzuk izan ditzagun.

I. FONIKO ALDERDIA

Ubillosen liburua irakurtzen goazelarik, berehala konturatzen da bat ortografia mailan zalantzan dabilela, edo ta ortografiari begiratu handirik ez diola egiten. Nik uste egokiago da zalantzan dabilela esatea. Hitz bat bera ezberdinetara ematen bait digu. Nabarmenki eman ere, ikusiko dugunez.

Baditu zenbait puntu berezi; hala nola: azentua, palatalizazioa, hatxea, tz/z, e/i, b/p, ez-en eraginak sortzen dituen ahozkatzeak, e/a alternantzia, marraren erabilera, etabar.

Aipatu ditudan fenomeno hauetako bakoitzean ohar batzuk egingo ditugu, Adibidetan ez naiz luzatuko, aspergarria izan daiteke eta; baina merezi du, liburu guztia irakurri eta apunteak jaso ondoren, zenbait bederen ematea.

1.1. Azentua

Sarritan hitz bat bera hiru eratara ematen du Ubillosek: azentu tentez edo etzanez jantzirik eta azenturik gabe. Eman ditzagun zenbait adibide: DA aditza:

- 1 - «Eta cer *dá* cisma?» or. 45
- 2 - «Cer *dà* martiria?» or 102
- 3 - «*Da* beraren hitz andia, ...» or 127

Horra bada, sintasia eta esannahi berdineko testuinguruan ere, esaldi tipo berean, alegia, batean azentu tentea dator eta bestean etzana. Hirugarrenean esaldi tipo ezberdina dugu. Baina esaldi epunziatiboetan ere berdin gertatzen zaigu: «Guizona *dá* Jaincoaren imagiña', ta anzecoa;» or 5. Eta bestetik: «...ta orretaraco eguiña *dà* guizona.» or. 5.

Adibideak hiru eratan aurkitzen baldin baditugu ere, ugariagoak dira azentu etzana daramatenak: *dà*, alegia.

DIRA aditza:

- 1 - «Cein *dirá*?» or. 123
- 2 - «Cein *dirà*?» or. 123
- 3 - «...bada berac eguiñac dira guciac,...» or. 125.

Hemen ere goikoa bera azaldu da. Eta nahiago izan dut esaera tipo berdineko esaldiak eman, kontraste hori garbiago ager dadin.

ZIREN aditza, Ubillosentzat «CIRAN»:

- 1 - «Nolacoac *cirán* San Juanen Sermoiac...» or. 75.
- 2 - «Cein *ciàn*, Jesusi agur eguin cioen lenengo Gentilac?» or. 65.

3 – «Ascò izandu *ciran*,...» or. 100.

x – «Ascò izandu *ciran*, Apostoluac eracutsi ta Jesusganatu *cirán*, judatarrac...» or. 100.

Galdera esaeretan nahiz enunziatiboetan ere garbi agertzen da kontraste hau.

ZEN aditza, «ZAN» Ubillosen arabera:

1 – «Ceín Tribu, familia, edo echecoazán?» or. 40.

2 – «...eta nola David *zàn* Christo necatuaren...» or. 42.

3 – «Non vici-oí-*zan* David?» or. 41.

«...ta eguin *zan* erregue urrengo guizon...» 60

DU aditza:

1 – «Cèr esan nai *dú* Jesus-en icenac?» or. 65.

2 – «Cer esan nai *dù* Christo icen onec?» or. 41.

3 – «Cismac esan nai *du*, lenagotic buru baten azpian sinismen...» or. 43.

«Aitac ezagutzen *du* bere burua...» or. 126.

ZUEN aditza: «ZUAN» Ubillosentzat:

1 – «Norc eguin *zuán* Mundua?» or. 7

2 – «Noiz deitu *zuàn* gure Jaunac?» or. 104.

3 – «Noe bere iru seme-errañequin, ta abereaquin cuch-oncian sartu zaneco, erauso cion euriari, ta berrogei egun, eta gau, bein ere atertu gabe, iraun *zuan*, lur gucia urez estali *zuán*, euri-jasa icaragarri batec.» or. 13.

ZUTEN aditza: «ZUEN» Ubillosengan:

1 – «Hoec esan *zuén*, Samaria, ta Jerusalem galduac izan beharcó *zuela*, baña Jerusalem berrirò eguiña izango *zàla*.» or. 47.

2 – «Cer eguin *zuèn* Apostoluac, Munduan banatu *ciran* baño, lenago?»

«Eguin *zuen* Credoa.» or. 106.

3 – «Nor izandu *ciràn* Juduen urrena Evangelioa sinistu *zuen* lenengoac?» or. 103.

x – Baina: «Ceren testiguanza edo lecucotasuna eguin *zuén* Martiri-*riac*?» or. 103.

Aditzaren mailan honelakoxe azentu aldakorra darabil Ubillosek. Egia da, azentu gabeko aditzerak errazkiago aurki genitzakeela esaldi enunziatiboetan. Baina, tarteka, galderazkoetan ere berdin topa genitzake. Ikus avrrez ipini ditudan adibideetan. Eraberean errazago topa genitzake azentu tentea, eta etzana ere, galderazko esaldietan. Baina banaketa horren barruan ere txunditzeko hainako kontradizioak aurkitzen dira. Hori garbi gera zedin saiatu naiz adibideetan kontradizio horiek ematen.

Aditzeretako azentuaz aparte, beste hitz moeta askotan ere berdin gertatzen zaigu. Eman ditzagun zenbait adibide:

1 – «Cér demboraran ill-*zàn* Jesus?» or. 89.

2 – «Cèr eguin cien bere Apostolui, aequin eguin *zuan*, azque-*neco* afarian?» or. 89.

1 – «Cér eguin *zuan* Jesusec afal-ondoan?» or. 89.

2 – «Cèr eguin *zuan* Judas-ec horduan?» or. 89.

2 – «Cèr eguin *zuen* horduan Apostoluac?» or. 89.

3 – *Cer eguin zuan San Pedro?* or. 90.

«*Cer eguin zán an Jesu Christorequin?*» or. 90.

Horra bada, Ubillosen kontradizioen lekuko polita. Ikasgai bakoitzaren ondoren, gaia bera jarraituz, galde-erantzunak dakartza. Lau galdera ezik beste guztiak ipini ditut ikasgai honetatik, eta garbi dago zer nolako nahastea darabilen. Baina ez pentsa uste gabeko adibide bat denik; honelakoxe beste pilo bat aipa genezake.

Genitibo edutezkoa maiz ipintzen du azentoz jantzirik, baina era ezberdinetako azentoz:

«guizonarén» or. 7	«Jaincoarén» or. 5	«amaren» or. 9
«munduarén» or. 9	«eguitearén» or. 5	
	«berarén» or. 6	
	«heriotzarén» or. 6	
	«demonioa-rén» or. 11	
	«munduarén» or. 12	
	«Adanén» or. 16	

Adibideok esaldi enunziatiboetan datoz guztiak. Azento etzanez gehiago bestetara baiño.

Hona beste zenbait adibide ere, tipo ezberdineko hitzen bitartez Ubillosen jokaeraz kontura gaitzen:

	«israèldarrac» or. 36	«israeldarrac» or. 37
«Israélgo» or. 44	«Israèlgo» or. 46	
«irú» or. 106	«irù» or. 107	
«burú» or. 106	«burù» or. 107	«buru» or. 106
«leguecó» or. 121	«Elizacò» or. 121	
«Aitác» or. 125	«Aitàc» or. 125	
(galdegaia) «guérenez» or. 142		«guerenez» or. 142
«Tá» or. 131	«Tà» or. 160	«ta» or. 160

«Ta» azentokikoa galderetan aurkitu dut. Bestea gainerantzeko loturretan. «Guerenez» azentokikoa galdegaiaren tokia duela; azento gabeak ez du toki hori. Dena den, kontradizioen berri emateko haina testigu bada hor.

Guztira begira, azentu etzana gehiago erabiltzen du azentu tentea baino.

1.2. Palatalizazioa

«GAIN» hitza mugatzailez edo erator atzizkiz osatua datorkigunean beti «GAÑA» da Ubillosengan: «GAINARI», «GAINERAKO» beti «GAÑARI», «GAÑERACO» idatziko ditu. Honela esaterako: 3, 35, 82, 186, 137, 216 orrialdetan. Eta hori, orain arte bezala, adibide bakan batzuk emanaz.

«BAINA» eta «BAINO» beti «BAÑA» eta «BAÑO» idazten ditu. -IN bokalez inguratua badago gehienetan «Ñ» ipintzen du. Esaterako:

«berdiña» or. 126
«Eguiña» or. 5, 38, 47, 112
«griña» or. 11
«Virgiñagandic» or. 72

- «atseguña» or. 31
- «soñean» or. 84
- «biguña» or. 80
- «miña» or. 87
- «anciñaco» or. 122

Ez beti ordea, lehen aipatu dudan bezala hemen ere baditu zalantzak edo ta kontra emandako hitzak; hala nola:

- «Virgiñari» or. 164, 166
- «Virginaren» or. 62, 132
- «sinistè» or. 145
- «sinislè» or. 145

Adlatibo bukatuzkoan datozen hitzak -ÑO egiten dute beti Ubillosen liburuan. Ikus ditzagun zenbait adibide:

- «Begi bietaraño» or. 43
- «orañdaño» or. 12, 66
- «horduraño» or. 19
- «azqueneraño» or. 45, 94
- «orañago» or. 20
- «arteraño» or. 63, 112
- «ugalderaño» or. 68
- «besterañoco» or. 68

Hitza -N-ez amaitzen baldin bada, batzutan, gehienetan, -IN idazten du. Jarri ditzagun zenbait exenplu:

- «berdin» or. 126
- «eguin» or. 5, 8, 9, 62
- «eguincituan» 47 or.
- «gaitzquin» or. 9
- «bein-ere» or. 158
- «ain» or. 84
- «cein» or. 145
- «ecin» or. 35, 84, 124
- «ecin-obeagoari» or. 58
- «ecin-geuiago» or. 58

Baina ez beti. Esate baterako:

- «ipuiñ» or. 35
- «beiñ» or. 74
- «eciñ» or. 58

Beraz, hemen ere, azentoan bezala, baditu bere kontradizioak. Gu-txiago noski, baina nabarmen gelditzen dira halaz guztiz ere. Zenbait kasutan izan liteke esateko era ezberdina zelako, jo dezagun: «sinistè» eta «sinislè» kasuan (or. 145). Baina ez noski beste hauetan: «ecin» or. 84 eta «eciñ» or. 58; «bein» or. 158 eta «beiñ» or. 74. Beraz, esatearen ezberdintasunaz aparte idazlearen zalantza ere jokoan dugu guzti honetan.

-IL bokalez inguratua dagoenean -ILL idazten du Ubillosek. Hona adibi-deak:

- «eragille» or. 9
- «eguille» or. 10
- «illeraci» or. 50
- «cillarezco» or. 3, 5, 85, 86

«salbatzalle» or. 41
 «cedilla» or. 67, 76
 «dabillena» or. 149
 «illuntasuna» or. 158
 «cillegui» or. 155
 «milla» or. 111
 «neque-emallei» or. 119
 «illa» or. 130, 80, 105, 137

Baina, bestalde, «ill» 133, 134 orrialdetan. Eta konsonantea ondoren duenean berriz, batzutan batera eta bestetan bestera:

«gurutz-iltzatua» or. 130, 105
 «il-ciran» or. 111
 «ilciran» or. 157

«ill-zan» or. 92
 «guizon illtzea» or. 152
 «illcorra» or. 157
 «ill-ditequeana» or. 157
 «ill-ditequeana» or. 157
 «illco» or. 170

Baita «ill-ezquero» ere 95 orrialdean. Hitz berdinaz baliatu gara bere jokaeraren ezberdina garbiago ipintzeko. Ez da batere arritzekoa joko hau. Oraindik euskarak bere ibilbideak zehaztu gabeak bait zituen milla gauzatan, baita txikienetan ere. Gaur bertan borrokan gabiltza eta nola ez XVIIIgarren gizaldian. Orduan borrokarik ez bazen zalantzak bai behintzat.

1.3. Hatxea

Hatxearekin ere berdin gertatzen zaigu. Nonbait ifarraldekoekin duen harremanak erabiltzera bultzatu du, baina noiz eta nolakoak ez ditu argi. Bere zalantzen lekuko ekarriko ditugun kasu bat baino gehiago emango dugu. Oraingoan ere, aurrekoetan bezala, ez ditut aipatuko hatxez idazten dituen hitz guztiak, ez eta gutxiagorik ere. Hemen, bere zalantza eta sistema ezaren testigantza ematea nahikoa izango da.

BEHAR hitza deklinabideko kasu guztietan, bai hitz eratorrietan nahiz elkartuetan hatxez idatzia aurkitu dut. Ene ustez, beti. Hona zenbait orrialderen aipamena konstatatu nahi izanez gero: 1, 3, 34, 58, 60, 6, 8, 31, 80, 85, 101, 111, 122...

Beste zenbait hitzetan ordea, batzutan bai eta bestetan ez dabil Ubillos. Esaterako: HITZ idazten du: 3, 5, 80, 84, 85, 97, 101, 119, 125, 127, 129, 130, 140, 168, 170, 173 etabar orrialdetan.

Baina bestetik ITZ idazten du: 5, 20, 31, 33, 80, 163, 165, 168 etabar orrialdetan. Inoiz orrialde bat bertan batera nahiz bestera.

Erakusleekin nahaste bera dugu: batzutan hatxez eta bestetan hatxe gabe. Aipa ditzagun zenbait ezaugarri:

Hau 55, 67, 69, 71, 89, 91, 101, 111, 129	onela 108, 126.
130, 137, 139, 140, 173.	oni 108, 172.
hoetatic 55, 110, 108.	oetatic 126.

hoec 108, 164, 169, 101, 111.
hoen 83
hori 103

oec 115, 122, 148, 169.
onelaco 115.
oen 115.
onen 54, 55, 59, 125, 126.
onec 126.
onetan 169, 174, 149
onequin 165
oei 136

Lehen eta bigarren graduko erakusleekin gertatzen zaigun berbera agertuko zaigu hirugarren gradukoarekin ere. Berriro ere zalantza eta nahastea:

Hura: 57, 65, 73, 86, 88, 90, 101, 108, 112
131, 138.

harc 136, 173.

haen 95, 149.

hari 51, 173.

haren 51, 53, 67, 74, 94, 105

ara 71.
andic 133.
an 54, 133, 130, 149, 156,
164.
aetan 91..
aen 54, 55, 114.
aec 115.
alacoac 115
arequin 136
artara 156
arc 51

Oraindik beste adibide bat gauza hau bera nabarmentzeko:

«hiltzearen» 58

«hill» ere badu non edo non, baina galdua
dut orrialdea.

«ill» 89
«illcitecela» 63
«illberria» 63
«ill eracitzeco» 84
«illaraztera» 87
«ill-gaia» 88
«illen» 94
«il-zuen» 101

Halaz ere badu zenbait aukera egina hatxe hori jasotzerakoan: ez du ipintzen konsonante ondoan. Barka, salbuespen bat topatu dut liburu osoan: «*otordu*» 187, «*othordu*» 188, «*orborduz*» 188. Bera ari denean behintzat ez. Ifarraldeko libururen baten kopia egiten duenean ere ez; kopia baino gehiago aipamena, bere erara moldatzen bait du; 170, 171, 172 orrialdeetan esaterako.

1.4. TZ/Z Fonemak

Aurrekoetan bezala zalantza bide berria dugu oraingoa. Dantzan bezala dabilta fonema hauek. Adibide sail batek argitasun gehiago emango digu, noski, eta, ipin dezagun:

«Hitz aurea» or 3

«hitzeguiteco» or. 3

«hitzac» or. 3

«latin hitzcunzarenac» 3

«hitzcuntz» 102

«gorputz-gabeco» 7

«hizcunz» 3

«goronz» 31

«bururonz» 31

«beinzat» 3

«aranzazco» 88

«anceco» 5

«gaitzquiric» 6	«eranzuac» 7, 10, 19
«adiratzen» 33	«morronzatic» 25
	«onci» 67
	«cenzatu» 67
	«enzun» 26
	«enzutera» 73
	«enzutean» 84

Inoiz, aditzeretan, nork ZUK ezaugarria indartu egiten du. Esaterako: «badarabiltzatzu» or. 3 eta «gaitzatzula» or. 81.

Tarteka baditu nahasketa apartekoak, hala nola: «...*hitz*cribitua, ta *hitz*cribitu gabea. Jainkoaren *hitz* iscribitu-gabea ...*hitz* escribitua» 108-109 orrialdetan. Lautan idatzi eta hiru eratara. Gehiegitxo da noski.

1.5. E/I Fonemen alternantzia

Hemen ere, bestetan bezala, eman ditzagun referentzia batzuk.

«SINISTU» hitza eta honez eratuak beti «I» fonemaz jartzen ditu. Gipuzkoako joera da nagusi beragan. Honela:

«sinistu» 18, 94, 165
«sinisten» 73, 168, 173.
«sinists-beharrac» 109.
«sinistmenic» 39.
«siniste» 145
«sinisle» 145
«sinistez» 174

Baina beste inoiz nafarrorantza jotzen du:

«ecusi» 10, 11, 14, 18, 25, 84, 85, 94, 95, 114.
«ecuscari» 24, 47.

Honetan ere baditu bere zalantzak eta duda-mudak:

«ispiritu», 8, 9, 46.	«espiritualac» 58.
«ispiritu-coiac» 57, 58.	
«ispiritu-corren» 59.	

Kasu honetan ifarraldeak eman dio seguruen «ispiritu» rantzako joera. Berdin beste honetan ere:

«iscribitu» 108	«escribitu» 109
-----------------	-----------------

Bizkaieraren aztarnak ere ikusten zaizkio tarteka:

«Eliza» 184, 185, 186, 187	«Eleiza» 70, 71, 182, 183,
188, 189	184

1.6. E/A Fonemak

«Elkar» hitza beti gipuzkerara ematen digu; beraz, «alkar» eginez.

«alcar» 14, 17	«alcargo» 18
«alcar-artze» 30, 47, 49	«alcargandic» 144
«alcartasuna» 17, 30	«alcarrequin» 144

«Bezala» berriz, ia beti honelaxe idazten du ifarraldean bezala. Badu halaz ere «becela» 172 orrialdean. Ihesi bat besterik ez dela dirudi ordea.

Aditzak iraganean nahiz esaldi menperatuan -N atzizkia jasotzen duenean, lotura bezala -A- dakar eta ez -E-. Beraz, hemen ere gipuzkoarren erara jotzen du garbi asko. Ipin ditzagun bakan batzuk:

«zituzla» 75, 133	«ditequean» 128
«guinduan» 126	«cezaqueana» 129
«gaituan» 126	«duana» 125, 126
«étzuala» 132	«ba-dala» 125
«zala» 132	«dan» 125
«daguiqueana» 125, 126.	«zana» 125.

1.7. B/P Fonemak

«WZ» adberbioarekin jokoan etortzen diren «BA» aditz aurrizkiak euskaldunak «PA» bihurtzen ditu. Honetara egiten du Ubillosek ere idazterakoan. Era, horrela, hizketaren testigu dugu. Berriz ere zenbait ezenplu:

«ez-padirudi» 3	«ez-pa-diegu» 162
«ez pada» 3	«ezpadio» 165.
«ez-pa-dira» 144	
«ez-padago» 161.	
«ezpada» 158.	

Beste zenbait kasutan gaurko baturako bidea hartzen du, hala nola:

«becatu» 163	«becatuaquin» 10, 11, 12, 9, 67
«becaturic» 162	«Baquean» 42, 149.
«becatuen» 167	«vizten» ere bai 82 orrialdean.

Beste batzutan hor agertzen zaigu bere zalantza:

«Pazcoa» 21, 26, 88	«Bazcoa» 22
---------------------	-------------

1.8. «EZ» en eraginez sortzen diren soinu eta idazkerak

Guehienetan herriak egiten dituen aldakuntzetara jotzen du Ubillosek. Ubillosen prosa hirugarren pertsonan dator ia beti. Beraz, ezin genezake eman bestetarako konklusio biderik. Hemen ipiniko ditugun adibideak, era berean, hirugarren pertsonakoak izango dira.

«etziran» 6, 35, 36, 54,	«etzuan» 9, 54, 80, 84	«etzuen» 6, 35, 54, 60
61, 91, 111		84
«etzan» 13, 42.	«etzala» 73.	«etzuala» 132.
«etzituen» 116, 118.	«etzeuqueen» 117	«etzitzaiena» 90, 118.

Baina baditu honelakoak ere

«ez dago» 153	«ez dezu» 26, 27, 170.
---------------	------------------------

Beraz, «Z» eta «Z» aurkitzen direnean egiten ditu aldakuntza horiek, ez, ordea, bestetan, hirugurren pertsona izanik ere. Jakina dago, ez ditudala adibide guztiak bildu. Problematika ikusteko hainbatean besterik ez.

1.9. Marratxoa

Idazkerako elementu hau gehienbat noiz erabiltzen duen jakitea interesa zaigu. Arazo honetan, bestetan bezala, izango ditu bere zalantzak. Kasu askotan ez du beti erabiltzen, baina askotan bai. Dena dela, zein kasutan erabiltzen duen batez ere jakingarria da.

1.9.1. Izen berezietan, izen propioetan darabil maizenik:

«Jupiter-en» 36	«Jacob-ren» 38, 41.
«David-en» 42, 44.	«Jerusalen-gatic» 49
«Mesias-gatic» 49, 59.	«Christo-gandic» 60.
«San Juan-gana» 74.	«Isabel-ena» 75
«Pilatos-en» 88, 90	«Judas-ec» 89.
«Nicodemus-ec» 93	«Moises-enerañoco» 144.

1.9.2. Izen arruntak, batzutan, marratxoaz banatzen ditu beren deklinabideko kasuetatik:

«guizon-ena» 37	«emacume-ena» 37.
«paciencia-requin» 50	«ber-ai» 55.
«Jainco-etara» 55	«gaizto-en» 57, 87
«gaizto-etatic» 57	«gorputz-etatic» 82.
«sacerdote-etara» 157.	

1.9.3. Hitz elkarketa marratxoz banatzen du baita bere elementuetan.

«alde-aurretik» 111, 39	«etorri-beharra» 39
«Erri-nausia» 39	«neq-eramalle» 42.
«mendi-gañean» 41	«erregue-aldia» 45
«alcar-artze» 47, 49	«fede-gabe» 49
«ongui-esanac» 50	«saca-banatu» 50
«er-besteetan» 50	«on-behar» 112
«guizon-emacume» 114	«erre-burni» 117
«oso-bete» 126	«atseden-contentuz» 130
«su-leicera» 134	«ezagun-bide» 145

1.9.4. Hitz eratorriak ere ugari ditu marratxoz banatuak:

«eraguitea-gatik» 36	«israel-darrak» 40, 57
«vici-era» 47	«catibu-tasunetic» 55
«ispiritu-coiac» 57	«aragui-corrac» 57, 85
«cargu-dunac» 85	«Jainco-arequico» 123
«barca-quizuna» 152	«guci-aldunari» 166.

1.9.5. Inoiz aditz oinarria eta aditz laguntzailea banatzeko bide bezala erabiltzen du

«izan-al-diteque» 96	«esan-ba-cien» 96
«iraun-zuan» 112.	

1.9.6. «BA» eta aditzeren banaketa egiteko erabiltzen du batzutan. Eta kasuan bai baldintza sentiduko «ba» elementua banatzeko, bai baieztapen sentidua adierazten duen «ba» banatzeko.

Baieztapena:

«Cer bada, Jaincoac *ba-du* escuico, edo ezquerreco escuric?» or. 135.

«Sinisten degu *ba-dala* Jainco eguiazco bazar bat...» or. 125.

«Tà bestela *ba-cera* haren Semea?» *Ba-naiz* haren graciaz» or. 160.

Baldintza:

«Dà, biac bezala, Jaincòta Jaun, edo biac diran, Jainco bera, irúrac Personá banà *ba-dira* ere» or. 140.

«Bai: Jaincoac guri barcatzea, *naiba-degu*» or. 163.

Baina, puntu honetan, aurreko bestetan bezala, badu zalantzarik. Beste kasutan marrarik gabe ipintzen bait ditu honelakoak:

Baieztapena:

«Iruetatic bata *badà* bestea?» or. 128.

«...eta juecic gorèna danac bezala, *baduala*, Ceruan ta lurrean, naiduan gucia eguiteco, ahala escua ta podorea» or. 134.

«Elizatic campoan badago becatuen barcamenic?» or. 153.

Baldintza:

«Jesu-Christoren puscac gueralaco, arequin ongui bagaude»... or. 151.

«Artu zazue Espiritu Santua: nori ere barcatzen *badiozcatzue* becatuac, ...ta nori ere ez *badiozcatzue* barcatzen...» or. 151.

1.10. Zenbait ondorio

1.10.1. Ubillos euskal liburu bat argitaratzen hasi denean ez da aurkitu esku hutsik. Jadanik zenbait liburu idatzia zen ordurako. Gehiago, maisu nagusi batzuk izanak zituen ordurako euskarak. Eta horiekin hartu-emanen zegoen Ubillos. Berak jaiotzetik zuen euskalkiak ez ziotkion ematen idazterakoan erabili dituen elementuak oro. «H» esaterako. Ubillosek ifarraldetik jaso du elementu hori. Dudarik ez da, «h» a erabiltzerakoan ez duela besterik gabe ifarraldeko ohitura jarraitu; kontsonante ondoan ez du «h» rik ipini. Kasu honetan ezik otordu 187, othordu 188, othorduz 188. Ez du ifarraldean bezain ugari erabili bokal artean, ez eta antzik ere, baina ez du bazterrera utzi, idazterakoan zalantza bat baino gehiagotan ibili bada ere.

1.10.2. Gipuzkera jator baten eman digu liburua Ubillosek. Ez Bizkai aldeko Gipuzkoan kokatua, ez eta ifar-eguzki aldean kokatua ere, Gipuzkoa erdi alde Nafarroa ingurukoan baizik. Jaiotzez ere horkoxea izan bera. Tolosa inguruan jaio, Amasan, eta Tolosan bizi izan zen luzaro irakasle bezala. Gero Arantzazun ere bai, han hil zen hain zuzen, baina ez du hango euskalkirik eman liburuan, ikuturen bat agertu bada ere.

1.10.3. Foniku alderdi honi idazkera ematerakoan baditu bere zalantzak. Oraindik ez du euskarak arau zehatz eta orokorrik. Aurretikako idazleek egin dute nahiko bide, baina ez dago horretaz arduratu den erakunderik edo ez eskola langutzikorik.

Zalantza hauek elementu txiki askotara edatuak daude. Hemen jarri ditugunak argitasun bide gerta daitezke.

Dena den, hor agertzen diren hainbat zalantza lojika bidetik kanpo geratzen dira. Bere buruari arau zehatz bat jarri izan balio ez zitzaizkiokeen horrenbeste elementu kontrajarri azalduko.

1.10.4. Puntu zail batzuri aurpegia eman die: hala nola azentoari. Aldakor eta arbitrario badirudi ere, ez du atzera egin. Aitortu beharra dago, dena den, zaila zela eta dela arazo horri bere barru haria topatzea. Puntu honek merezi luke aztertze geldi eta zehatz bat, Ubillosek azentoa ipintzerakoan hizkuntzaren zein barru seni begiratu zion konturatzeko. Halaz guztiz ere, beste puntutan bezala, badituela bere zalantzak esan dugu. Eta honi eusten diogu.



II. MORFOSINTASIA ALDERDIA

Gure asmoa haxe da: ezaugarri izan daitezkeen elementu batzutan gelditzea. Hauen berri labur bat ematea. Nolabait ere, eman nahi ditugun ezaugarrien bitartez, Ubillos idazlea ezagutzea. Badakigu, eraberean, ezaugarri nagusi bat baino gehiago liburuan utziko dugula, aukera egin behar izan baitdugu: Dena den, argi gera bedi zein asmok zuzentzen gaituen.

2.1. Deklinabidea

Ez ditugu kaso guztiak aztertuko, ez eta deklinabidea osorik emango. Interesgarri iruditu zaizkidan kaso batzutan geratuko naiz. Esaterako, NOR eta NORK kasotan iteresgarri iruditu zait erakusleen berri ematea.

2.1.1. NOR kasoan

«OEC»/«HOEC»: 3, 7, 8, 12, 14, 18, 21, 29, 31, 46, 63, 66, 72, 122, 124, 148, 167, 182, 210 orrialdetan bai behintzat. Baina ipin ditzagun esaldi batzuk.

«Berezco hitz *oec*, hitzcribitcean, ta esatean, ezarri behar dira, bacoitzari dagocan, toquian» or. 3.

«Il ciran *oec*, eta oen semeac gueitu, ta ascotu-ciran...» or. 21.

«Ecin irichi-ditzaquegu gueren indarracquin virtute *oec*...» or. 122.

«Escomunicatu *oec* dira... or. 148.

«Nolacoac izan oi dira penitencia *oec*?» 210.

«AEC»/«HAEC»: 15, 31, 37, 46, 71 Ipin dezagun esaldi bat edo beste:

«Eta guizon gaizto *aec* castigatzeo zer eguin zuan Jaincoak?» or. 15.

«*Haec*, eta hoec bereganatu naizandu cituan Jaincoac,...» or. 46.

«ORIEC»: 123.

«HAUCHEC»: «Zure leguèac *hauchec* dire...» or. 171. Orrialde hau guztia ifarraldeko euskalkian idatziriko libururen batetik hartua eta moldatua dago.

«HAUC»: «*Hauc* bi mandamentura biltzen dituc laburqui.,.,» or. 172.
Honek ere ifar euskalkia du abiapuntu. «Dituc» hitanoa da, beraz, «dira» ren ordaina dugu hemen.

2.1.2. NORK kasoa

«OEC»: 48, 71, 122, 148, 148, 223. Jar ditzagun esaldi batzuk.

«...eta Sacramentuetan, *oec* ematen digüen gracia.» or. 122.

«...baña *oec* gucioc, alcargana fedez ta Caridadez baturic ez due eguiten,...» or. 148.

«AEC»: 49, 176.

Ondorio bezala esan genezake NOR kasoan nahiz NORK kasoan forma berdinak erabiltzen dituela Ubillosek. Horrela, idazle gehienen bidea jarraitzen du. Ia guztiena hala esateko. Bestalde, «hauek» esan ordez «oec» nahiz «hoec» darabilela, halako hurbiltasuna ematen dio esaldiari.

2.1.3. NORI kasoa.

NORI plurala ez du egiten -EI edo -ERI ifar Euskadin eta Nafarroan bezala (Gpuzkoako ifar eguzkia aldean ere bai), -AI baizik. Gipuzkoa sartaldean eta Bizkaian bezala beraz.

«Israeldarra» 30, 33

«Jaincoai» 32, 52

«gauzai» 33

«juduai» 52

«idolai» 36, 37

«lagunai» 53

«guizonai» 38

«judutarrai» 55

«ciranai» 47

«enzuleai» 75

«Profetai» 50

«icasleai» 81

Arritzekoa da baina beste era ez da ia inoiz agertzen. Oker ez banago baten bakarrik aurkitu dut -ERI atzizkia: «ARRANZALERI» or. 76.

2.1.4. ZEREZ kasoa, instrumentala.

Erakusleetan hiru era aurkitu ditut: -Z/-ZAZ/-TZAZ.

«...ta *oez* gañeracoac, noc daqui nongoac, ta norenac.» or. 3

«...ta orregatic ere *oez* guciac ez-da eguiten, gorputz bat baicic.» or. 148.

«Amabi *oezaz* gañera, horduraño bicitu ciran,...» or. 19.

«...eguizueh au *nizaz* oroitzen ceratela.» or. 87.

«Cer eguinzan badà *artzaz?*» or. 48.

Baina -TAZ ez dut aurkitu izenetan, ez izen ordainetan, ez erakusleetan.

2.1.5. NOREKIN plurala.

Beste bereizgarrietatik bat soziatibo eta motibatibo kasoetan plurala, mugatu anitza egiteko era da. Nire iritzian ifar euskalkietatik jaso. Euskarak plural egile bi ditu deklinabidean: bata AK eta bestea -E(G). NOR kasoan -AK erabiltzen dugu eta beste kasoetan -E(G). Baina Ubillosek aipatu bi kasuetan ere -AK erabiltzen du.

«echecoacquin» 16

«umeacquin» 57

«escuacquin» 37

«seme-errañacquin» 67

«atsacquin» 43

«egaztiacquin» 67

«anaiacquin» 54	«guciacquin» 76
«onacquin» 83	«indarracquin» 122
«apostoluacquin» 86	

Beste batzutan -K gabe agertzen da baina azken batez berdin da:

«gaiztoaquin» 13, 70	«gendeaquin» 39
----------------------	-----------------

2.1.6. NORENGATIK kasoa, plurala

«idoloac-gatic» 37	«sacramentuac-gatic» 146
«guciac-gatic» 35	«pecatarioc-gatic» 166
«oben-culpac-gatic» 50	«zuecatic» 87.

Azkeneko kasu honetan gorra eta ozena batera zetozen eta euskal fonetikaren arabera gorra bakarrik gelditu da.

NONDIK kasuan ere honoko kasu hau topatu dut: «gaiztoac-gandic» 120. Kasu honetan gor eta ozenen elkartzeak ez du sortu lehen aipatu aldakuntza.

2.1.7. NORANTZ kasoa.

Ubillosek -RONZ egiten du.

«aterontceco» 3	«goronz» 31
«gaitzeronz» 9	«bururonz» 31
«alderaonz» 16	«ateroncean» 164

Hona bada deklinabideari buruz Ubillosek darabilen bidea ezagutzeko zenbait elementu. Interesgarria zatekeen bilaketa beste bide batez egitea, mugagabea, mugatu bakarra eta mugatu anitza nola banatzen dituen, esaterako. Baina eman ditudan argitasunak nahiko egokiak direla uste dut Ubillosen bereizgarriak ikusteko. Dena den, arazo guzti hauetan aukerak egin beharra zegoen eta nik honetara eraman dut nire burua.

2.2. «A» Itsatsia

Aipatu besterik ez dut egingo. Zalantzak ez zaizkio falta alor honetan. Ikus dezagun:

«Izcunz» 3	«latin-hitzcunzarenac» 3
«anai» 77, 78	«anaia» 12, 16
«gauz» 16, 162	«gauza gaiztoac» 14, 158
«Eleiz gucien burua» 145	«Eleiza bat» 145
	«Eleiza Catholicoac» 147
«Eliz barrumbean» 147	
«Eliz berean» 149	
«gaiztaqueri» 50, 51, 114	
«doaqueri» 51	

Aspaldidanik zaigu atsegin nonbait «a» ren ekonomia gipuzkoarroi. Ubillosek ikasiak ditu bide horiek, etxeko joera bait zuen. Badator ale bakarrenbat bere osoan: «garbiteguia» or. 213.

2.3. -Zko adjetibokia

Adjetibotasuna adierazteko eren artean badu euskarak bat -ZKO atzizkiaz baliatuz egiten dena. Izenaren aurretik naiz atzetik datorkigu idazleetan, bai eta herriaren erabileran ere. Modu honek erdal adjetibo zenbaiten euskal ordaina topatzeko errezasuna emanten digu. Autore zaharrek maiz erabili digute. Ipin ditzagun Ubillosek darabiltzan zenbait::

- «jaiozco ta ecarraizco legue?» 16
- «bidezco joate» 25
- «guezurrezco lecucotasun testimonioric» 27
- «legue berezco mandamenduac» 27
- «araguiuzco becatuic» 27
- «guezurrezco Jaincoa» 32, 36, 43, 46, 49, 52, 54, 55, 67.
- «Jaincozco izanic» 35
- «guezurrezco leguearen» 46
- «arrigarrizco emetasun» 50
- «jatorrizco leguea» 68
- «irudipenezco lan» 83
- «cillarezco oquei ta amar dirutan» 86
- «amoriozco suz» 99
- «burnizco azcazalaquin» 115
- «nequezco denboran» 119
- «eguiuzco Eleiza» 146

Baina baita bestera ere ematen ditu Ubillosek:

- «Jainco guezurrezco» 35
- «Eleiza eguiuzcoa» 45
- «Jainco eguiuzcoa» 37, 49, 51, 54, 55, 67
- «legue eguiuzcoa» 70
- «diru cillarezco» 85
- «odol testamentu berricoa» 89
- «seme-eguiuzcoa» 127
- «legue eguiuzcoari» 145
- «Eleiz eguiuzcoa» 145, 146.

Gehienetan, adjetiboki hori atzetik doanean, mugatzailez horniturik dator, baina ez beti. Lehenengo kasuan agertzen denez «idolo, edo Jainco guezurrezco...» or 35. Gainera indar berezi bat hartzen duela esan genezake honelako mugatzaile gabetasunez.

Besteetan, adjetibokia aurretik doan adibideetan, semantikari buruz, bada kasu berezi bat. Ubillosek *lege naturala*, «*jatorrizco leguea*» itzultzen du. Egoki emana dago, baina, gaur, *jatorriak* jaiotzezketasuna adierazten du, iturburua adierazi nahi du. Ubillosek, berriz, sentidu hau «jaiozco ta ecarraizco legue» (16 orrialdean) itzultzen du.

2.4. Bere/haren

Arazo honek sarri askotan nahasten gaitu. Ikusi arin baten besterik ez bada ager dezagun nola dabilen Ubillos. Hain zuzen, gipuzkoarrok izan gara joko honen nahastatzaile, hala dio Lafitte-k, Laburdiko kosta aldean ere, gure nahaste honen eragiñez, zabaldu dugula. Eraberean bi hauen

erabileraz lege batzuk ematen ditu gure gramatikolari ezagunak. Guk segi diezaiozun Ubillosoi: baina aurretik Lafitte-n legea gogoratzea ondo etorriko zaigu: «209. Emploi de *bere* et *haren*. Le réfléchi dépend d'ordinaire du verbe à mode personnel de la proposition où il se trouve; il se réfère à un possesseur *désigné* comme sujet, complément direct ou complément indirect *dans la forme verbale*» Pierre Lafitte, *Grammaire Basque*, Elkar, Donostia, 1979, or. 92.

1.—«Nor dà Demonioa?

—*Bere* eguille Jaincoaren contra jarri *zan*, aingueru gaiztoa» or. 10.

2.—«Jesu-Christo, ta *bere* Virgin-amandrea ez beste guciac jaiotzen dira» or. 12.

Kasu honetan, Lafitte-n arabera, *haren* behar zukeen oker ez banago. Hala dio Lafitte-k: «*aita eta haren semea heldu ziren...* (le verbe *dóborde aita*)» o.c. 93 orrialdean. Beraz, Ubillosen kasu honetan ere *haren* behar zuen eta ez *bere*.

3.—«...ta Eva berac jan, ta janeraci *cion bere* senar Adani...» or. 9. Nork? «*Eva berac*», «*cion*» aditzean sartua dugu. Perpausa bereko aditzarekin lotua dugu beraz «*bere*» hori.

4.—«Abel ona *zan*, baña Cain gaiztoa, ta *bere* anaia ona izatea ecin eramán zuana» or. 12.

Hemen, «zuana» erlatiboaz eta mugatzaileaz, «gaiztoa» bezala, atributo eginkizunean dator, «*bere*» «*zvana*» aditzerarekin jokoan dator.

5.—«Oni Jaincoac aguertu *ciozcan bere* asmoac...» or. 17. Nork? «Jaincoac», «*ciozcan*» ekin jokoan.

6.—«Eta an eracutsi cien Jaincoac *bere* leguea eta borondatea...» or. 26. Aurrekoan bezala oraingo honetan.

7.—«Baña Israeldarrac urratu zuen Jaincoari eman cioen, itza; ausi zuen beraren legue santua, eta *etzuén* eguin *haren* esanic, batere...» or. 32.

Noren? (Jainkoaren) alegia baina kasu honetan ez dugu aditz barruan, ez da ez suiekto, ez osagarri zuzen, ez zeharkako.

8.—«Baña azqueníc Jaincoac eguin *zuan* David, *bere* etsai guciac baño, andiagoa, ta indartsuagoa... Davidec *bere* mendean *ceuzcan*... baña Jaincoac adiraci *cion*, eguiteco hau *aren* semearentzat guelditzen *zala*. Bai-ta-ere adiraci *cion* Jaincoac Davidi, *aren* ondorengoac izango *cirala*... *aren* odoletic etorrico *zala*» or. 39-40.

Esaldi hau oso egoki datorkigu Lafitten arauen barruan. Adibide polita bi erabilerak kolpe batetan sartzeko.

Lehenengo perpausan: Nor? Jainkoak *David* egin *zuen bere* etsai guztiak baino handiago; osagarri zuzena dugu David eta aditzean azaltzen da. Bigarrenean suietoa dugu «*Davidec*» eta aditzean azaltzen zaigu «*cenuzcan*», beraz, «*bere*». Hirugarren perpausan, perpausa menperatua, ez da agertzen aditzean edukitzaille hori. «*aren* semearentzat», Daviden semearentzat, alegia, gelditzen zela. Berdin laugarrenean ere: «Jaincoac Davidi» esan zion «*aren* ondorengoac izango *cirala*», Daviden ondorengoak, alegia, Erabe-rean bosgarrenean, edukitzaille hori, menperatzailea, poseedorea, ez dago aditzean adierazia, «*aren*» datorren perpausako aditzean ez dago adierazia; beraz, «*aren*».

9.—«Cer aguindu, edo cèr esqueñi *cion* Jaincoac Davidi?

–*Haren* ondorengoac izango *cirala*... *Haren* ondorengoan-danic etorrico *zala*...3 or. 41. Aurreko esaldian gertatzen den kasu bera dugu.

10.–«Daviden ondorengo erreguea izandu zan *haren* seme Salomon...» or. 42. David-i begira dago «*haren*», eta David ez da «*zan*» aditzaren suietoa. Beraz, ez dago aditz horretan adierazia.

11.–«Baquean, ta atseguin-contentuz betea vicitu-zan Salomon *bere* denbora gucian... Eguin zuan Salomonec, *haren* aita Davidec lenagotic eguin gogo izandu zuan...» or. 42.

«*Salomon*» suieto bezala adierazia dago «*bere*» datorren perpausako «*zan*» aditzean.

Baina «*Salomonec*» lehenengo «*zuan*» aditzaren suietoa da eta «*Davidec*» bigarren «*zuan*» aditzaren suieto, eta bigarren perpausan lehenengoko «*Salomonec*» en aipamena egiten dugun ezkerro, «*haren*».

12.–«Salomonec *bere* azquen egunetan *bere* aisia, ...galdu zuan» or. 43. Hemen «*bere*» hori, lehenengoa, suietoari zuzendua dago eta bigarrena ere bai. Biak daude perpausa bereko aditzean adieraziak. Kasu kuriooa egiten du.

Dena den, ezin dugu jarraitu honetara. Antzeko esaldi pilo bat dator Ubillosen liburu honetan. Arazo honek ere merezi luke behar bada, guztiak bildu eta analisia bat egitea. Dena den, orain arte ikusi dugunez, biak ondo bereizten dituela garbi dago. Halaz ere, ene iduriz, bada hor egoki ez datorren kasu bat. Aipatu dudan bigarrena hain zuzen.

Ikusi nahi izanez gero hona hemen beste esaldi sorta baten orrialde aipamena: 43, 44, 45, 51, 53, 58, 69, 72, 73, 74, 77, 79, 78, 125, 126, 130, 132, 133, 136, 144, 148, 159, 159, 190, 207.

Beraz, klasikoen artean «BERE» eta «HAREN» en erabilera ondo bereizia dago, ez ifarraldean bakarrik baita Ubillosengan ere behintzat. Beste garai hartako gipuzkoar idazleak aztertu egin beharko lirateke; eta orduan gure konklusioa orokorragoa izango litzateke.

2.5. Izen bihurtzea

Edozein hizkuntzak bezala, euskarak ere, esaldi osoak izen bihurtzen dizkigu zenbait jokoren bidez. Honetarako euskarak erabiltzen dituen bi bide nagusi hauek dira: erlatibozko esaldiak, erlatiboaren bidez, eta -T(Z)E atzizkiaren bidez aditz izenak osatuz. Ubillosek ere ugari darabiltza bai bata eta bai bestea. Aditz adjetiboa ere hor dugu mugatzailearen bidez sarritan izendua. Hizkuntzaren barru elementuak dira eta ezin da esriburik aurkitu honelako elementu baliagarriak gabe.

Dena den erlatibozko esaldia oso maiz erabitzen du Ubillosek.

1.–«christauari dagozcan eguia sinis-beharren-berria dacarrena» or. 1.

Berez, perifrasi luze baten ordaina oso egoki eman digu esaldi honetan «eguia sinis-beharren-berria dacarrena». Honen ordeaz normalean, beste hau aurki genezake: «sinistu beharrezko diren egien berria dakarrena». Baina ordena eta morfologia aldatuz ondo taxutu du esaldia. Batetik «egia» aurreratu du eta gainerantzekoa ondoren jarri digu. Bestetik, genitibo edutezkoan etorri behar zuen eta «berria» izenaren osagarri bezala, baina bere funtzioa aldatu du.

2.-«Bigarrenac, christauac jaquin, ta sinistu behar dituan, eguien era-custea, ta icas-videa» or. 1.

3.-«Adizazu orain, gizon andi jaquintzu batec eguiteco onen gañean diona» or. 4.

4.-«...aren burua ausico zuana, edo emacumeagandic jaioco zala demonioa garaitu, ta aren escu, ta eguin-al guciac galduco cituan salvatzallea» or. 9.

5.-Profetac liburu santuetan esango zuana» or. 58.

6.-Eliza urratzea eta zatitzea» or. 43.

7.-Eleiza urratzea eta banatzea» or. 45.

8.-Jaincoa serbitzen etzuenac» or. 60.

9.-Penitencia eguiten zuenac» 80.

Nahikoa da Ubillosten esaldiz. Bestalde ez dago hemen aparteko elementurik. Hizkuntzak normalki eta beti erabiltzen dituen bideak bait dira. Ubillosek ez du esaldi konplikaturik erabiltzen gehiengan.

2.6. Hitzzen ordena

Sintasia egokia du Ubillosek. Ez da bestalde monotonoa. Joskera honen barruan halaz ere, nik nabarmenago iruditu zaizkidanetan jarriko dut begia.

1.-«Fray Juan Antonio Ubilloscoac» or. 1 dio titulo ondoan. Euskarak gehienbat *Ubillosko Frai Joan Antoniok* esango luke, baina aintzinatik ezaguna dugu beste joskera hori ere. Gaur bertan bada honela esaten den toki bat baino behiago. Oso joskera jatorra da ba.

2.-«Lendabico zatiac *dacar* Jainkoaren legue zarrean ta berrian guertaturicaco gauzen berri laburra» or. 1

Askotan honetara egiten du. Aditz nagusia aurrean jarri eta gero dator galdegaia. Dudarik ez dago erdararen eraginak sortu duela joskera hau, baina lagungarri da esaldia luzea denerako. Honela esanahia laister baten ikusten da eta ondoren datoz osagarriak, baita galdegaia bera ere.

3.-«Jaincoac bere itzarequin eta bere vorondatez *eguin zuan* ecerezetic Mundua, bere gloriaco, edo bere izate andi ecin-ederragoa aguertzeco» or. 5.

4.-«Guizon hau *da* ...F. Laurentius a Villavicentio...» or. 4.

5.-«Orduan Jaincoac *madaricatu zuan* suguea, ta adiraci zuan emacumeagandic etorrigo zala, aren burua ausico zuana» or. 9.

Ez da ordea, beti horrela gertatzen. Sarritan ez bait dago argitu behar apartekorik, esaldia bera laburra da eta argia. Hala ta guztiz ere Ubillosek, tarteka, aditza aurreratu egiten du eta galdegaia atzeratu:

6.-«Guizona *da* Jainkoaren imagiña, ta anzecoa...» or. 5.

7.-«Cer esan nai du icen apostoluac?

-*Esan nai du* Bidalduac» or. 78.

Berez, hemen, *Bidalduak esan nahi du* ipini eta hala zegokeen argien. Ez zukeen euskal joskerarik apurtuko, baina Ubillosek sarri honetara egiten du. Ez gehienetan, baina, aldika bai. «Cer esan nai du *icen apostoluac*», dudarik ez dago *apostolu izenak* ipini behar zuela. Galde-erantzune-

tan ateratzen zaizkio honelako joskerak gehienbat. Ez ordea, norma bailitzan, berez-berez baizik. Eta ez beti, ez eta gutxiagorik ere, tarteka baino.

8.-«Eta cer eguin zuan...?»

-*Eguin zuan* cisma bat» or. 45.

9.-«Eta Jerusalengatic?»

-*Esan zuen*, hura ere erorico zala, baña guerò berriz eguingo zala» or. 49.

10.-«*Da* Jaincoaren Semea» or. 131.

11.-«...ta aguindu ere zuan...» or. 21.

Galdegai aditza bera dugu, «*aguindu*» alegia, Altuberen esanei jarraituz gero «egin» sartu beharko zukeen «ere» eta aditz laguntzailearen bitartean. Baina lege hori ez da orokorra Euskal Herrian. Sarritan tonuz eta egiten dugu horixe bera eta galdegaiaren indarra hartzen du.

2.7. Aditz sistema

Ubillosen aditzerak, bere sistemaren nortasuna eta beste euskalkietatik jasoaren testigutza garbia dira. Batetik, aurreko gaietan bezala edo argiago, Gipuzkoako sena agertzen zaigu, esango dugunez. Bestetik, ifar euskalkietatik jasotako elementuen berri ematen digute aditzerok, batez ere NOR-NORI-NORK aditzeretan.

Argiago ager dadin Ubillosen erak eta batu erak emango ditugu, bata bestearen ondoan. Horrela, konparaketa egokiagoa izango da. Euskalkiak ere hobeki nabarmenduko dira.

2.7.1. NOR-NORK aditza, indikatiboa. Lehenengo batua, gero Ubi-llo sena.

Dut	«Det»	or. 77, 125
duk/n	dek/n	
du	du	
dugu	«degu»	or. 121, 122, 125, 142, 191
duzu	«dezu»	or. 3, 26, 27, 87
duzue	dezue	
dute	«due»	or. 8, 10, 143, 148, 150, 159, 164, 165, 191, 196, 197, 207

Orrialdeen aipamenik egiten ez duten aditzerek ez ditudala aurkitu esan nahi dute, edo ta ez naizela konturatu. Eta erabiltzen dituen besteen arabera, beste formen arabera, neuk jarri ditudala. .

Hemen azpimarratzeko da, lehenengo ta behin, aditz erroan dagoen aldakuntza: «u» «e» bihurtua, alegia. Gipuzkoarren erara dudarik gabe.

Bada beste bat Gipuzkeraren ezaugarri bat izanik Ubillosek ugari eta beti darabilena: «te» NORK hirugarren pertsonaren ezaugarria: «due» dio eta ez «dute». Jate hau sistematikoki emango digu Ubillosek.

Ditut	Ditut
dituk/n	dituk/n
ditu	ditu
ditugu	ditugu
dituzu	dituzu/tzu

dituzue dituzue
dituzte «ditue»

Eta gero, ez da sartzen, jakina dago, «tu»/«te»k sortzen duten bitarteko «z» ere.

Nuan Nuen
huan huen
«zuan» zuen or. 58, 59, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 67, 70,
74, 75, 76, 77, 79, 101

genuan genuen
zenuan zenuen
zenuen zenuten
«zuen» zuten or. 57, 58, 59, 62, 69, 70, 73, 75, 77, 80,
83, 94, 100, 111, 133

Nahastu egin naiz eta lehenengo Ubillojena ipini dut, gero batua. Oharrak: Aditz erroa eta denbora ezaugarria dugu «n» bitartean «a» ipini du Ubillosek. Hori ere Gipuzkeraren ezaugarria.

Bestetik, lehen aipatu duguna bera: «zuten» ordeztu, «zuen». Baina oraingoan nahaste bide berri bat sortuaz, edo sistema aldatuaz: «zuan»/«zuen» egin du, berez, beste oposizio hau litzatekeena: «zuen»/«zuten». Eraberean: «zenuan»/«zenuen» egin du, beste honetara beharko lukeena: «zenuen»/«zenuten»

Nituen Nituan
hituen hituan
zituen «zituan» or. 6, 7, 8, 9, 11, 15, 21, 22, 23, 25, 27, 30,
31, 34, 36, 39, 40

genituen genituan
zenituen zenituan
zenituzten zenituen
zituzten «zituen» or. 11, 14, 22, 34, 37, 38, 39, 48, 50, 51,
54, 56

Aurrekoan bezala, bi elementu ezaugarri berberak ditugu.

2.7.2. NOR aditza. Indikatiboa

Naiz Naiz
haiz haiz
da «da» or. 62, 139, etabar...
gara «gera» or. 191, 10, 14, 162.
zara «zera» or. 77
zarete zerate
dira «dira» or. 59, 125, 141, 148
/«dire» or. 171.

Oharra: Ubillojena ematean idazkera gaurkotu egiten dut. Orain aditzera interesa bait zaigu eta ez idazkera.

Hemen ere pluraleko lehenengo eta bigarren pertsonen gipuzkerako «e» ezaugarria daramete.

Hirugarren pertsonen pluraleko aditzera «dire» dator batean. Baina Ubillosek, hor, zehazki aipatzen ez badigu ere, ifarraldeko erak gogoratzen dizkigu. Beraz, testuinguru horretan emandakotzat jo behar dugu. Dena

den, beste zenbait aditzera aldatu dituelarik hori hor uztea esangarri bihurtzen zaigu. Lapurterak erakarria dago bere burua.

Nintzen	Nintzan
hintzen	hintzan
zen	«zan»
ginen	ginan
zinen	zinan
zineten	zinen
ziren	«ziran»

Gipuzkerako «a» ezaugarria nabarmentzen da Ubillosten aditzeretan.

2.7.3. Nor-nori: hari

Darraizkion

«becatuari darraizcan» 10, 68

zitzaizkion	«citzaizcan» 23, 51
zitzaizkion	«citzaizcan» 54
zerraizkion	«cerraizcan Jaincoari» 58, 85.
gatzazkiola	«gatzazcala» 16
zaizkion	«zaizcan» 36
zekiola	«cequiola» 31 («nai cequiola Jaincoari»)

Gaur eguneko «-KIO» horren ordez bai aditz trinkoetan, bai aditz laguntzaileetan «-KA» hori darabil. Gaur egun ere oso ugaria da Gipuzkoan honelako jokoa. Erraz entzun genezake: «etxera joan zitzaizkan lapurrak». Halaz guziz ere azkenekoan «nai *cequiola*» dio. Gaurko erara hain zuzen, gaurko batu eta herri erara, jatorki hitzegiten den tokietan, jakina.

Aurreko erako aditzerek asko topa genitzake oraindik:

dagozkion	«christauari dagozcan» 1
Dagokion	«bacoitzari dagocan» 3, 138, 139.
zitzaizquion	«cizaizcan» 31
zegozkion	«zegozcan» 35
zegokion	«cegocan» 35
zaizkion	«zaizcan» 36, 32, 172, 27
zaizkio	«zaizca» 140
badagokio	«badagoca» 214

Bide beretik doaz NOR-NORI-NORK aditzak ere «HARI» dagozkion eretan. Ikus dezagun labur bederen. Goian eman dugun tituloari ez dagozkio, baina fenomeno berdinak eskaintzen dizkigutenez gero, hementxe ematea interesa zaigu:

Dizkio	«diozca» 210, 211, 208, 210, 214
zizkion	«ciozcan» 27, 17, 79
dizkiogu	«diozcagu» 140
dizkiozue	«diozcatzue» 151
dizkiogula	«diozcagula» 172

NOR-NORI aditzerek askoz ezagunagoak eta erabiliagoak dira Gipuzkoan NOR-NORI-NORK aditzerek baino. Aldakuntza hau, azkeneko sail

honetakoa, halaz ere, oso erabilia da gaur egun aldakuntzatxo batez: «egin dizka», «egin zizkan», «egin dizkagu» eta era honetakoak oso erabiliak dira gaur egun ere.

Fenomeno honezaz aparte bada beste zenbait aditzera ikustea bederen interesgarri izan daitekeena. Lehenengo NOR-NORI-NORKi dagozkionak:

zizkieten	«ciozten» 32
dizkiegun	«dieztegun» 81
d'zkie	«diztet» 17
dizkien	«dizten» 158
zizkien/zizkieten	«cizten» 14, 28, 35, 36, 46, 50, 67, 69, 71, 89, 94, 99, 101, 115, 116, 168.

Azkeneko honetan batuan bi era eman ditut. Izan ere testoak berak hartuz bi sentidukoak daudela uste bait dut. Ikus dezagun:

1.—«Etzuen cer ibilli galdez, jaquiteco, gauza gaiztoac cirala lapurreta, ta gañeraco, alcarri eguiten *cizten*, dollorqueriac, ta bidegabeac» or. 14. Beraz, *haiek haiei*.

2.—«Esaitzu, Jaincoac Israeldarra Sinaico mendian eman *cizten* aguinte manu edo mandamentuac» or. 28 Beraz, *hark haiei*.

3.—«Heren Jainco eguiatzcoa utci, ta infernucoac asmaraci *cizten*, Idoloac Jaincotzat artzea» or. 35 Beraz, *hark haiei*.

4.—«Haec eta hoec bereganatu naizandu cituan Jaincoac, ta orretaraco biraldu *cizten* Profetac» or. 46. Beraz, *hark haiei*.

5.—«...orregatic gende itsu zoratu aec, Idoloai, eta Idoloen barrenen sarturic ceuden, demonioai eguiten *cizten*, pestac ciran ordiqueria, ta onelacoac» or. 36. Beraz, *haiek haiei*.

6.—«Israelgo, ta Judaco Erregueac, Profeten ongui-esanac, aser-esanac, eta atelecac ongui artulecuan, esquèr orde asco naigabe neque ta pena emancizten Profetai;...» or. 50. Beraz, *haiek haiei*.

Aditzera berdina sentidu ezberdinetarako erabiltzeaz aparte bada hemen beste ezaugarri berezi bat ere: hain zuzen «te» NORI sentidua adierazteko erabiltzea. Orrialde honetan goian eman ditugun beste aditzetaren ere horixe berbera gertatzen zaigu. Baina, «cien» esaten du *har haiei* sentiduan: 51, 52, 53, 54, 55, 73.

Baina NOR-NORI aditzean ere berdin egiten du Ubillosek: *haiei* «te» bidez adierazten du:

zitzaizkien	«citzaizten» or. 114
zaizkien	«zaizten» or. 140
zaizkie	«zaizte» or. 151



2.7.4. Subjuntibozko erak

diezaiozuen	«erregu diozazuen» 167
izan dadin	«izan dadin» 167
zaitezen	«vici zaitecen» 170
bizi hadin	«bizi-adin» 171
zerbitza dezaten	«servitza dezaen» 222
etor zedin	«etorri cedin» or. 135
har dezaten	«artu deceen» 216
gal ez dadin	«galdu ez dedin» 194
zuzen gaitezen	«zuzendu gaitecen» 186
jaio zitezen	«jaio citecen» 222

Esaldiotan ikusten denez ohar batzuk egin litezke:

–Aspektoa gora ta behera dabil. Dantzan beste elementu asko bezala. Batzutan infinitibo radikalean dator eta bestetan ekintza amaituaren seinaleaz. Beraz, XVIIIgarren gizaldian, Ubillosengan behintzat, nahiko gorputz hartua zegoen partizipioa subjuntiboaz eta aginteraz erabiltzeko.

–«diozazuen» aditzerak adierazten digunez, eta oharra egin ez badugu ere, 2.7.3. zatian eman ditugun NOR-NORI-NORK aditzeretan ere ikusten denez, *NORI: HARI* adierazten duen «-IO» elementua aurreratu egiten da aditzera barruan. Esaterako «diozazuen» eta ez diezaiozuen.

Hemen ipiniko ditut, eraberean, agintera esanhaia edukiarren, subjuntibotik hartuak dauden «-la» kiko aditzerak:

- «bataia cezala» 74, 75
- «izan citecela» 85
- ken ziezaiola «quen ciozala» 87
- eman ziezaiola «eman ciozala» 87
- eraman zezatelako «eraman cezaelaco» 94
- «quen ditzala» 162
- «begira gaitzala» 162
- jarrai ziezaioleta «jarraciozaela» 76
- «billa cezala» 103
- «eramanerazi cezala» 103
- «erregutu dezala» 164
- «baztertu cedilla» 76
- «barautu gaitezela» 186
- «ecarri diezagula» 176 (diezaiegula).
- «hondratu dezagula» 172, 176
- «hontra ditzagula» 176
- «hondra dezagula» 176

Hirugarren pertsonako aditzerak, aginteran, «-la» honen bitartez osa ditzakegu. Ez bakarrik, baina bai era horretara ere. Eta dudarik gabe erabiliena da. Horrelaxe, baita Ubillosengan. Zenbait infinitibo radikalean ipintzen ditu, baina gehienak partizipioan.

Badu bestalde, kasu berezi bat ere. Hona hemen:

«Finean mihiari emoc guardia, ezten guerzurti, eta aicen, falseria irauztera, beldurti» 171. Hemen, «ezten» eta «aicen» subjuntiboak dira. Indikatiboari «n bat erantsi eta besterik gabe subjuntiboa dugu lehengo sisteman. Dudarik ez dago, hor, ifarraldeko eragina duela Ubillosek, eta ez bere

lurretakoa. Izan ere, testu hori dakarren inguru guztia ifarraldeko eren aipamena bait da.

2.7.5. Ahalera

Subjuntiboaz batera **AHALERA** ikusteak argitasun gehiago emango digu hor aurrean aipatur dugu. Aspektoaren erabilera, esaterako, nola datorren ikusteak lehen utzi ditugun zalantzak argituko dizkigu. Gehienbat partizipioan datorkigu aditza. Argi ez daudenak partizipioa eta infinitibu radikala era berdinean dutenak dira, baina, gainerantzean partizipioan dator aditza. Beraz, garai honetako idazleetan, edo, hobeki esan, Ubillosengan behintzat, infinitibu radikala bezain naturala da partizipioa subjuntiboan eta ahaleran. Eman ditzagun adibideak; liburuaren azken aldetik hartuak daude.

- «ecusi ditequean» 190
- «sartu diteque» 193
- «ecin eguin diteque» 194
- «jaquin dezaquegun» 190
- «eguin dezaquean» 194
- «izan al-dezaque» 195
- «izan al-diteque» 202
- «ecin vici diteque» 203
- «gaitz etsi diteque» 209
- «barcatu ditezque» 211, 213
- «ecin artu ditezque» 221
- «vici ditezque» 224
- «arindu ahal ditzaquegu» 213
- «ecin eman ditzaque» 217
- «eguin al-dezaquec» 196
- «esan dezaquean» 203
- «barca ditzazcala» 215 diezazkiola

Adibide guzti hauetan bar dago garbi infinitibu radikalean, azkeneko hau hain zuzen. Besteak edo ez dira argiak, edo ta partizipioan daude. «Izan» aditza Gipuzkoako erara *UKAN* eta *IZAN* sentidutan, *NOR* eta *NOR-NORK* aditzen sentidutan dator hemen elkarren ondoan ipini ditugun bi esaldieran. Eta ez ifarraldean bezala ondo banaturik. Ifarraldean bezala, **AHALERA**-rekin batera *AL* datorkigu zenbait kasutan. Beste baten «*ahal*» berriz, «*diteque*» dio, eta ez «*daiteke*». «Eta baita «*dezaquean*» eta «*ditequean*», gipuzkerako bereizgarria.

Orain bi gizaldi eskas gipuzkerako zenbait elementu ondo zehaztuak zeuden. Eta dudarik ez dut egiten, beste zenbait elementu ez direla agertu seguruen ifarraldekoen eraginagatik. Eragin ona dudarik gabe, idazkeran behar dugun batasun bidea erakusten bait digu horrek, baina, bestalde, euskalkia bere osoan aztertzeako agiri gutxiago gelditzen zaizkigu horretara.

Ondo legoke, eraberean, **AGINTERA**ko aditzerak aztertzea. Baina honez gero utzi egingo ditugu. Esan dezagun halaz ere, «*esaitzu*» sintetiko eran diola, eta «*hondraitzatzu*» infinitibo radikalean azkeneko hau. **NORK ZUK** indartu egiten du, ez aginteran bakarrik baita bestetan ere, askotan behintzat. Bestalde «*biz*» ere sarritan agertzen zaigu.

- «esaitzu» 23, 28, 78.
- «hondraitzatzu» 26
- «biz» 140, 166, 167
- «ala biz» 166
- «biz ala» 167

Gaur egun «biz» ordeaz «bedi» esaten da. Ubillosek «biz» ematerakoan joskera bitara egiten digu.

2.7.6. Aditz trinkoak

Euskal munduan hizkuntza eskuratua dagoen ala ez ezagutzeko bideetatik bat aditzaren erabilera da. Ubillosek aditza bere sistema zabalean egoki eta naturalki erabiltzen digu. Etxekoa du euskara. Eta gaur egun liburuan nekez ikus ditzakegun aditzerak ongi eta errez ateratzen zaizkio.

Esaterako, aditz trinkoa nekez baizik ez da erabiltzen, zenbait aditzera soil kenduz gero, baina Ubillosek aditzeren alor guztia erabiltzen du batetik eta bestetik gaur gutxi baizik erabiltzen ez diren aditz asko aurkitzen ditugu bere liburuan.

Beste gaietan bezala, honetan ere, adibide sail bat ematea izango dugu egokiena:

- «eretsi» 93, 133
- «irabiatu» 137
- «gaitzetsi» 171
- «egotzi» 195
- «eracarri» 200
- ecarri: «cecarren» 38
- jaquin: «baciequien» 14, 57, 68, 93, «daqui» 139, «daquienac» 184, «daquianac» 194.
- Joan: «cijoacela» 94, 96.
- Eduki: «ceucan» 83, 93, «ceuquena» 98, «ceuzcan» 32, 38, «gauzca», 136, «dauca» 119, 155, 147, «ceunqueen» 83, 134, «etzeuzqueen» 118.
- Egon: «cegozan» 47, «dagoen» 136, «gauden» 150, «ceudela» 97, «dagoan» 146, «dauden» 98, 99, «ceuden» 26, 47, 133, «cegoan» 32, 61, 211, «dago» 137, «daude» 184, «ba-dago» 211.
- Ikusi: «cecus-cela» 96.
- Iraun: «cirauen» 96, «dirauen» 217, «dirauque» 217, «dirau» 47, «dirauen» 65.
- Eraman: «Ceramazquienac» 115, 150, «ceramaen» 117, «darameen» 213, «daramazquien» 149, «garamazquien» 162, «daramagu» 162, «ceramazquian» 80.
- Ihardun: «ciarduen» 119, «diardugula» 174, «diarduenac» 9, 95.
- Irudi: «dirudien» 211, «cirudian» 51, 75, «ciruditenez» 86.
- Etzan: «datzan» 169, «dautzan» 171, «ceutzan» 91.
- Eritzi: «deritza» 12, 122, 25, 28, «derizten» 164, «derizte» 168, 19, 22, «baderitza» 210, 211, «cerizten» 68, 69, 120, «ceritzan» 12, 18, 21, 41, 54, 61, 85.
- Etorri: «datorrela» 139, «cetozen» 144, «datorquizun» 152, «cetorquien» 38, «cetorquian», 80, 73.

Egokitu: «dagozten» 175, 201, 209, «dagozcan» 131, 179, 181, «cegozcala» 94, 221, «badagoca» 214, «cegozcan» 35.

Jarraiki: «darraizcan» 10, 68, «cerraizcan» 85, «darraicana» 151, 164, «itzari cerraicala» 25, «cerraizten» 25, «cerraiztela» 36, «ba-cerraizcan» 57, garraizcanean» 160.

Ibili: «cebiltzanean» 28, «cembiltzan» 86.

«Erausia» 3, «darausquizunean» 3.

Zenbait aditz bereziak direla esan genezake, hala nola «eretsi»; bi aipamenetan Kristo gurutzetik *jaitsi* zutela esateko darabil. «Jarraiki» ren erabilera polita da. Beti NOR-NORI aditza bezala. «Erausi» aditzarena ere apartekoa da. Are gehiago gipuzkoar idazle batengan, XVIIIgarren gizaldiaren bukaera aldera hain zuzen.

2.8. Bizkaieraren aztarnak

Ubillos Tolosa inguruan jaioa zen, haurtzaroa bertan egin eta gero ere, gizon heldua zelarik Tolosan bizia. Euskara horrek markatu du Ubillos. Bere ikasketak Arantzazun egin zituen lehendabizi, eta bizitzaren azken aldera luzaroan Arantzazun egona da Aita Villasantek dionez (ikus Historia de la Lieteratura Vasca, Aranzazu, 1979, 154 pág.).

Arantzazuko egoera honek bizkaieraren ikutuak eman ziezazkiokeen. Dena dela hona berriro ere ezaugarri bat edo beste:

«noc daqui» 3

«dacuscun» 3

«guichic» 3

«guichiren» 77

«andi» 4

«ea deguiola besteri» 14

«Eleiz» 39, 43, 44, 45, 51, 53, 77, 96, 101, 148, 158, 167. Baina beste batzutan «Eliz» ipintzen du: 43, 149.

«Hortu edo baratz» 87

«batu» 137, 146

«baque» 149

Elementu gutxi badira ere zenbait bederen, garbi garbi bizkaierakoak dira.

2.9. Esaldi kausalak

Egin ditudan oharrez aparte, badira joskera mailan, nire gogoia erakarri duten bi puntu: esaldi kausalak eta baldintzazkoak. Bi hauetaz arituko gara laburkiro. Eta orain kausalei buruz.

Puntu honetan, Ubillos, ifarraldeko idazleen eraginaren testigu delako bidea aurkitzen dugu. Izan ere, badu haietatik jasorikako gauza bat baino gehiago. Horietatik bat esaldi kausalen antolatzeke era. Beti «ceren» en bidez datoz esaldiok: «ceren ...-n». Puntu honetan ez du antolaketa ezberdinak egiteko joerarik. Ifarraldeko idazleetan zalantza eta modu ezberdin horiek ikusten dira, baina ez Ubillosengan. Honek beti joskera bera eta elementu berdinak. Hona esaldi batzuk:

«...ceren Jaincoa ezagutu eta maytatu dezaquean...» 5
 «ceren ori, eta aguitz geiago zorzaion haren...» 58
 «Ceren ceruetaco Erreinua urrean dagoan...» 73
 «Ceren gure Jaunac bere Apostoluac bialdu cituan» 77
 «Ceren dan San Pedroren ondorengoa, eta ceren haren silla, ta jartoquia berean eseriric dagoan» 107
 «Ceren Aita-tasuna, Seme-tasuna, ta Espiritu-Santu-tasuna gauza bana, edo bereciac izanagatic; Jaincotasun bat baicic ez da Iruta-sun, edo Trinidadè hau gucia» 126. Hau kasu berezia dugu
 Ubillosen kausalen munduan. Kontzesiba honetan ez du aditzera «-n» ez amaitzen. Izan ere, esaldiaren kontzesibotasunak ez dio uzten.
 «Ceren eracusten duan, gucia dan ona... ceren Eleizaco Sacra-mentuac diran santuac»... 143-144.
 «...ceren berac eguin guinduan» 127
 «Ceren haren gloria aguertzen zacun» 160
 «Ceren becaturic geienen etorqui, ta iturburu diran» 182
 «Ceren eguiten dituen...» 207.

2.10. Baldintzazko esaldiak

Baldintza mundua eskema honen arabera azal genezake:

INDIKATIBOA		AHALERA	
1	orainaldia: <i>banaiz</i>	orain-gero aldia: <i>banadi</i>	4
2	Lehenaldia: <i>banintzen</i> 1 -ko <i>banintz</i> <i>nintzeteke</i>	gero, beharbadazkoa: <i>banendi</i>	5
3	2 -i (izan) <i>banintz</i> <i>nintzatekeen</i>		

1 eta 2 baldintza errealak ditugu. 3 berriz baldintza hipotetikoa. 4 eta 5 gaur egun egoaldean erabiltzen ez diren aditzerak dira; tarteka erabiltzen dira halaz ere. Posibilitateaz mintza zaizkigu baldintza hauek, laugarren eta bostgarren erakoak, alegia.

2.10.1. Indikatibozko oraina aldiko baldintzak

Baldintza aurrea dugu indikatibozko orainaldian, baina baldintza ondorioa etor liteke indikatibozko orainaldian nahiz potentzialeko (ahalerazko) orainaldian.

a) Baldintza ondorioa ahalerako orainaldian.

«Eusquerazco hitzac ongui ez-padirudi edo oitua ez pada; hura utzi, haren ordean hartu diteke, arc esan nai duana, adirazteco beste bat» or. 3.

«Chiqui ariñac, erraz eguiten diran, ta erraz barcatu ditezquean, venial edo barcagarriac ba-dira becatuac; oec confesio gabe ere barcatu ditezque» or. 211.

«...ta eman ere badiozoque eriarri, ongui badagoca, leneco bere osasuna» or. 214.

«Sacramentu bat artzen duan edoceñec, Jaincoac eracutsi dituan eguien sinismenic, edo federic baldin badu, eta artzeco, behar dan bezala prestatzen ba-da, segurù jaquinic ba-dagoque mundu onetan vici gueralà, jaquin dezaquegun ambatean, ba-duala, ondasunic andiena dan, Jaincoaren gracia» or. 190-191.

Azkeneko bi hauetan aditz nagusia ez da potentziala bakarrik, bai, aditzera potentziala da baina, eraberean, berarekin darama baieztapeneko «ba» aurrizkia. «Badiozoque»k hau esan nahi du: bai, *benetan eman diezaioke*. «ba-dagoque» horrek berriz, bigarrenekoak, barkatu, azke 'esaldi-koak esan nahi dut, hau dio: bai, *badagoke*, edo *egon dagoke*. Beraz, galdegaia dugu azken bi esaldi horietan.

b) «Baldintza ondorioa «behar» elementuaz moldatua.

«Al-ba-da Elizan eguin behar da bataioa...» or. 194.

«Becataria bere becatuaz ongui damuturic, ote dagoan, edo ez, bai da, dudan ba-dago confesaria, luzatu behar dio aldi bateraño absolvicioa, egunen batzuen buruan biurtzeco, epea ematen diola» or. 211.

«Cerbait behar badegu, gueren nequearekin irabaci behar degu...» or. 179-180.

«...Confesariac eman behar dio absolvicioa, eta barcacioa, becatuen locarriac ascatzen diozcala, baldin baderitza, becatuac eguinaz, damutua arkitzen dala becaturia» or. 210.

Ikus era honetako esaldiak 165, 211 orrialdeetan ere.

c) Baldintza aurea kontzesiba.

«Baña ezcontza chit santua, ta ona bad-ere, obeagoa da, ezcondu gabe, gorputz, ta anima osotorò garbi vicitzea» or. 222.

«ta gure gorputzac ustelduco badira ere, Jaincoac bere gucialarequin osatu, ta batuco dituala eren lenagoco animaquin...» or. 155.

Kontzesiba honen abiapuntua baldintza aurea bera da.

Baina inoiz, «bada» hori, lotura gailu besterik ez da gertatzen, adbersatiba sentidua hartzen du esaldiak:

«Eta orregatic etzaie ematen aùrrai bataiatu, ta berealacoan, ezpada, orretaraco jaquin behar dana, icasten duenean» or. 222.

d) Baldintza ondorioa indikatibozko orainaldian.

«Bataiatzen dàna aurrà bada, haren orde z aita-amà Pontecoac erantzuten due...» or. 194.

«Eusqueraz dorausquizean, eusquerazco hitzac ez badarabiltzatu, zure erausia hitzunea, edo barbarismoa dala esango dizue» or. 3.

«...obra onac gucienac dira, Jaincoaren gracian badaude» or. 148.

Era honetako esaldiak ditugu baita, 17, 151, 214 orrialdetan datozenak ere.

2.10.2. Indikatibozko lehenaldiko baldintzak

Beti ere, aurrekoak bezala, baldintza errealak dira. Nolabait deitzeko diogu baldintza errealak. Oraingo hauek, eman berri ditugunen erakoak dira. Egitura ez da aldarzen. Ubillosi honoko hau topatu diot (baldintza aurea kontzesriba da):

«Gueroenean Pilatosec, gogaituric, damuturic, ta gogoaren kontra bazan ere, eman zuan, Jesu Christo gurutzean iltzeco sententia» or. 90.

Beste hau apartekoa da formaren aldetik:

«...ta onec eman cien, Jauna erai saltzeco, ta aen escuetara eramateco hitza, baldin saltze onen aldé eman nai-baiciozqueen, amabost escutu balio zuen, ogeui ta amar diru cillarezco» or. 85.

Ene iduriko «eman nai-baiciozqueen» hori, *eman nahi bazizkioten* da. Hau da, baldintza aurea garbiki. Ez dut beste adibiderik aurkitu Ubillosengan.

2.10.3. Baldintza hipotetikoa

«Ots bada, irten zaite bereala zere erritic, Nic eguingo zaitut, ecin contatu al adiña, genderen Guraso, ta Aitona; zure ondorengoai emango diztet Canaango bazter eder ugariac, ta ondorengo orietan bedeincatuco ditut munduco guciac, esan balio bezala, zure odoletic jaioco dà. munduaren Salvatzallea» or. 17-18.

«Ezconduac ongui nai behar dioe alcarri, anima birequin, gorputz bat baicic, ez-palira bezala, ...» or. 222.

Aurreko bi esaldi hauetan moduzko eran dugu baldintza aurea. Eta bestalde, bietan orainaldiko esaldien barruan dator, parentesia batetan, baldintza aurea. Esan dezagun baita, hirugarren era honetako esaldia, baldintza, hipotesia edo irrealitateari begira dagoela.

Hurrengo esaldi honetan baldintza jokoa osorik datorkigu: baldintza aurea eta ondorioa.

«Eta ecin izanditeque Jainco bacar bat baicic; bada bi balira, ecin luque batat, besteac duana, ta ez lizaque Jaincoa, dan bezala, oso-beté...» or. 126.

Laugarren eta bostgarren erako baldintzarik ez dut bat bera ere aurkitu Ubillosengan. Hori dela ta ezin dugu lekuko gabeko baieztapenik eman ez eta ezetapenik ere.

2.11. Ifarraldeko euskalkien emana

Aztarna bat baino gehiago dugu ifarreldeko euskaraz. Lapurterak eman dio esaera modu eta morfologia elementu bat baino geiaho. Aldian aldian egin dugu zenbait aipamen. Orain, hemen, ezer berririk esan gabe gogoratu besterik ez dugu egin nahi.

NOR-NORI-NORK aditzean NORI ezaugarria aurreratzea lapurteraren azterna duela uste dut. «eman ciozala» eta honelakoak. Ikus horretarako geuk lehen eman ditugun adibideak 2.7.3.-an eta 2.7.4. zatietan.

Esaldi kausalak egiterakoan ez du ez bizkaierako modurik ez eta gipuzkoako modurik jaso. Dударик gabe ifarraldeko idazleetatik jaso du «zeren» ekiko era hori. Ikus 2.9 zatia.

Deklinabidean, kasu batzutan, plurala oso-osorik erabili du *lagunacquin* eta era horretara. Ikus 2.1.6 eta 2.1.5 zatiak.

Lesikoan ere ondo nabarmentzen da ifar-nafarren emana: «ongui» 211 eta honelako.

Bestalde, testo osoak ere, eman dizkigu ifarraldeko euskaraz. Halabaina ez ditu testoak bere osoan eman, emakera horretan gipuzkerara jarri bait ditu gauza batzuk: aditzak esaterako. Dena den, ikus 170-172 orrialdeak.

2.12. Zenbait ondorio

2.12.1. Erakusleen sistema pluralean honela da Ubillosengan

«oec»	«oriec»	«aec»	NOR kasuan
«oec»		«aec»	NORK kasuan

Beraz, badirudi NOR eta NORK kasuan berdina dugula, idazle gehienetan bezala. Halaz ere Ubillosek «hoec» edo «oec» esaten digu eta ez *hauek* eta «haec» edo «aec» eta ez *haiek*.

2.12.2. Ubillosek, beste euskalkien azternak baditu ere, gipuzkeraz idazten du. Hori garbi dabo. Eta ez da frogatzen hemen aipatu ditugun adibide batzuren bidez, baicik eta testu osoaren bidez. Gipuzkera trinkoa eta erreza. Herriko hizkuntza, baina eraberean, kultur mailako gaietan eta forman trebatua. Kultur gaiak euskal, senaz adierazteko aurpegia du Ubillosek. Erlijioso mundo horretan egina bazegoen ere, gipuzkeraz, Ubillosek eta bere garaiko gizonek eman zioten aurrea.

Guzti honen lekuko hor dira gai bakoitzean erabiltzen dituen hitzak, lesikoa, aditzerak, esaldiak lotzeko era.

2.12.3. Lapurtera ere errez agertzen zaigu Ubillosengan, bai lesikoan, bai aditzeretan, zenbait esaldi menperatu eratzeko tankeran, kausalak esaterako. Dударик ez dago, Gipuzkeraren ondoren, dakartzan elementurik gehienak lapurterakoak dira.

2.12.4. Joskera ona duela esan behar. Halaz ere, bere garaiko idazleek ohi dutenez, esaldi nagusia sarritan botatzen dute aurrera, lehen mailara. Horretara, esan nahi dena laisterrago eta argiago ikus dadin. Halaz ere, euskara jatorra du eta ez da nolanahi erdararen morroe. Berak dionez, hizkuntzaren sena lantzen eta azaltzen saiatzen da, eta hortik aurrera ez du beste hizkuntzen eretara jotzeko lotsarik.

2.12.5. Aditzeren erabileran aberats agertu zaigu Ubillos. Aditz laguntzailea ez da indikatibo hutsean, subjuntiboa eta ahalera ere egokieraren arabera agertzen dira. Naturalki datoz Ubillosen lumara. Eraberean,

Nor aditza bezala ematen digu NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NO-RI-NORK ere. Aditz soila, trinkoa bezala konposatua. Guzti honetan berezkotasuna sumatzen zaio Ubilloi.

2.12.6. Subjuntiboa, ahalera eta aginterarekin partizipioa nahiz infinitibo radikala darabiltza. Eta partizipioa gehiago bestea baino. Beraz, egoaldekoko literaturaren sorrera bertatik daukagu partizipioaren erabilera hau. Eta hori, lapurteraren eragina nabarmen duelarik ere. Honelako idazleen azterketak, gai honetan bezala beste askotan ere, sarritan ohi garen baino zentzun gehiagoko izatera garamatza.



